



*Bigarren Lehendakariodea eta Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2022KO AZAROAREN 25EKOA, BIGARREN LEHENDAKARIODEA ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATU EGITEN DA 2022KO AZAROAREN 24AN, BIGARREN LEHENDAKARIODEA ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAK EMANDAKO AGINDUA NON BERMATZEN DEN BIZKAIKO INDUSTRIA SIDEROMETALURGIKOAREN SEKTOREAN, 2022KO AZAROAREN 28, 29 ETA 30RAKO, ETA ABENDUAREN 1 ETA 2RAKO DEITUTAKO GREBAN EUTSI EGINGO ZAIELA KOMUNITATEARI EMAN BEHARREKO FUNTSEZKO ZERBITZUEI.**

2022ko azaroaren 24ko Aginduan, 2022ko azaroaren 28, 29 eta 30ean eta abenduaren 1 eta 2an deitutako greban zehar Bizkaiko industria siderometalurgikoaren sektoreko enpresetako langileek gizarteari ematen dizkioten funtsezko zerbitzuei eustea bermatzen duenean, honako ez-egite hauek antzeman dira, eta, beraz, zuzendu egiten dira, honako gertakari hauetan oinarrituta:

SERMANFER, S.A.U., enpresak gutxienerako zerbitzuak eskatzeko idazkia aurkeztu zuen 2022ko azaroaren 23an.

SERMANFER, S.A.U. enpresak, CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A. enpresarekin zerbitzuak emateko kontratua dauka indarrean. Kontratu horren arabera, Euskotrenek Bilboko tranbian dituen trenen mantentze prebentiboa eta zuzentzailea, istripuak konpontzea eta mantentze-lanak egiten ditu.

Zirkulazio-askatasunerako eskubidea (Konstituzioaren 19. artikulua) oinarritzko beste eskubide batzuk baliatzeko oinarria da, hala nola, bizitza, osotasun fisikoa eta osasuna babesteko behar den laguntza jasotzeko eskubidea; pertsonen segurtasunerako eta osotasunerako eskubidea, batez ere – Konstituzioaren 15. artikulua –, eta horrek «funtsezko» izaera ematen die greba-egoeretan, bai eta gainerako herritarren lan- eta eskola-lanak egiten diren zentroetara joateko eskubidea ere, eskubide horiek ezin baitira behar bezalako babesik gabe geratu grebarako eskubidea legitimoki gauzatzearen aurrean.

Kasu honetan, deia ondoz ondoko bost egunekoa denez, funtsezkoa da, herritarren joan-etorria segurtasun-baldintzetan bermatzeko, gutxienerako zerbitzu batzuk ezartzea, hau da, larrialdiko konponketak egin ahal izateko telefono-guardien talde bat.

Hain zuzen ere, sektore horretako aurreko greba-deialdi baten aurrean (2019ko maiatzaren 23an eta ekainaren 6, 7, 20 eta 21ean), gobernu-agintaritzak horrek 2019ko ekainaren 4ko Agindua eman zuen. Agindu horren bidez, besteak beste, asteburuko telefono-guardiak ezartzen ziren, gertakari larriak konpontzeko.

Nahiz eta orduan agindutako gutxieneko zerbitzuak ez diren deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridiko loteslea – doktrina konstituzionalak galarazitako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko zer eragin positibo edo negatibo izan dituzten, deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez, agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasun konstituzionaletan – grebarena barne –. Horregatik, agindu honek orduan emandako gutxieneko zerbitzuei eusten die.

DF. OPERACIONES Y MONTAJES, S.A. enpresak, PETRONOR enpresaren lantokia izanik, greba-deialdiaren eraginpean, azaroaren 17an gutxieneko zerbitzuak eskatzeko idazkia aurkeztu zuen.

Eskaera horretan, PETRONOREk emandako ziurtagiri batek abalatuta, adierazten da DF OPERACIONES Y MONTAJES, S.A.k, besteak beste, astelehenetik ostiralera egiten dituela petrolioaren fintzeko prozesuan sortzen diren koke- eta sufre-kamioiak kargatzeko lanak. Kokea eta sufrea lantegitik atera ez geroz, sortuko litzatekeen pilaketa, PETRONOREn petrolioaren fintzeko prozesua geldiaraziko litzateke.

Aurreko greba-deialdietan adostutako gutxieneko zerbitzuen artean koke- eta sufre-kamioien karga finkatu ez bazen ere, greba-egun bakarra edo bi izanik, instalazioak duen kokea eta sufrea biltegitzako gaitasunak eguneroko ekoizpena jasan zezakeelako gertatu zen hori. Oraingo deialdian, ordea, bost greba egun jarraian egingo dira azaroan eta abenduan, eta, ondoren, asteburu bat eta bi jaiegun izango dira hurrengo astean. Beraz, kokea eta sufrea, zati batean behintzat, kentzen ez badira, biltegitzako nabeetatik, PETRONOREn biltegitzako gehienezko ahalmena beteko litzateke, eta enpresa horren jarduera geldiaraziko litzateke.

Horregatik, zerbitzua gutxienez azaroaren 29an eta abenduaren 1ean ziurtatu beharko da.

Horregatik guztiagatik, Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enplegu sailburua, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak jasota, honako hau

#### **EBAZTEN DU:**

**Lehena.-** Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak 2022ko azaroaren 24an emandako Aginduaren xedapen-zatia aldatzea. Agindu horren bidez, Bizkaiko industria siderometalurgikoaren sektorean 2022ko azaroaren 28, 29 eta 30erako eta abenduaren 1 eta 2rako deitutako greban gizaritari eman behar zaizkion ezinbesteko zerbitzuak mantenduko direla bermatzen da. Aldaketa horiek honela egingo dira:

1. Ebazpenaren lehenengo paragrafoa honela geratzen da idatzita:

**A.-** ELDU, S.A. enpresan: Erretenen sistema mantenduko da telefono bidez.

**B.-** FD OPERACIONES Y MONTAJES, S.A. enpresan, PETRONOR enpresaren lantokian, 2022ko azaroaren 29an eta abenduaren 1an:

- a. Garabia maneiatzeko lanak egingo dira petrolio-kokea Pitetik kendu eta garraiagailuen zirkuituan sartzeko. Kontrol-gelako eragiketa-lanak, AL6 unitateko ekipoak/makinak maneiatzea eta landa-lanetan lehen esku-hartzea mantentzea. SR6 sufre-kokearen kamioiak kargatzeko lanak, kokea eta sufrea findegitik kanpo garraiatzeko, gehieneko biltegitarte-ahalmena ez asetzeko.
- b. Gutxienerako zerbitzuak azaroaren 29an eta abenduaren 1ean egingo dituzte hiru langilek eguneko lan-txanda bakoitzean. Lehenengo txanda 06: 00etatik 14: 00etara izango da, eta bigarrena 14: 00etatik 22: 00etara.

**C.-** ELECENOR SERVICIOS Y PROYECTOS, S.A.U enpresan, Iberdrolaren lantokian, 2022ko azaroaren 28, 29, 30an, baita abenduaren 1 eta 2an:

- a. Honako lan hauek egingo dira:
  - Fusible urtuak aldatzea, BTko (Behe Tentsioa) eta MTko (Tentsio Erdia) lineetan tentsioa berreskuratzeko, bai airekoan, bai lurpekoan.
  - Iberdrolaren linea BTn haustea. Laguntza ematea, bezeroei zerbitzua berreskuratzeko eta, ondoren, behin betiko konponketa egiteko.
  - Transformazio-zentroetan ura txikitzea, xukatze-sistemak huts eginez gero instalazioari zerbitzua berreskuratu ahal izateko eta kaltetutako eremua zerbitzurik gabe ez uzteko.
  - Trentzatu kaltetuak edo apurtuak aldatzea LABTn (behe-tentsioko aireko lineak), bezeroei zerbitzua berreskuratzeko.
  - Kaltetutako instalazioetan arriskuak eta oinezkoen kalte materialak edo kalte fisikoak eragin diezazkieketen arriskuak ezabatzea (hautsitako zutoinak, faltak, kaltetutako kableak)
  - Transformazio-zentroak hornitzen dituzten ETko zirkuituak eta lineak konpontzea, herriak edo hiriak argirik gabe ez uzteko.
  - Ekipo elektrogenoak instalatzea, matxura arrazoizko denboran konpondu ezin bada zerbitzua emateko.
- b. Gutxienerako zerbitzuak zaintalde batek egingo ditu. Zaintaldeko langileak guardia-txandako zaintaldeko kideak izango dira.

D.- SERMANFER, S.A.U. enpresan, Euskotrenen lantokian:

- Telefono-guardiak mantenduko dira Bilboko tranbia-zerbitzuko Euskotrenen trenetan gerta litezkeen larrialdiko gorabehera larriak konpontzeko.

**Bigarrena.-** Aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira, dagozkion administrazio-izapideak egin ondoren, grebaren iraupena kontuan hartuta, edo higiene-arrazoiak, arrazoi biosanitarioak edo gerora sortutako beste ezohiko arrazoi batzuk direla-eta.

**Hirugarrena.-** 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte zerbitzuak lehentasunez.

2. Langileen ordezkariari entzun ondoren, Enpresaren Zuzendaritzari dagokio gutxieneko zerbitzuak egin behar dituzten langileen izenen izendapena eta eginkizunen esleipena, txandaka, betiere aurreko artikuluan eta indarreko legerian jasotako mugak errespetatuz.

**Laugarrena.-** Agindu honen aurreko idatz-zatietan jasotako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira nahasi horiek emateko izendatutako langileen aldaketek edo lanuzteek. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira, eta eragiten dituztenek erantzukizuna izango dute, eta erantzukizun hori indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera eskatuko zaie.

**Bosgarrena.-** Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez du ekarriko inolako mugarik greba arautzen duen araudiak egoera horretan dauden langileei aitortzen dizkien eskubideetan, ez eta greba eragin duten eskaeren izapidetzeari eta ondorioei dagokienez ere.

**Seigarrena.-** Agindu hau jakinarazten den egunean jarriko da indarrean.

**Zazpigarrena.-** Jakinaraz bekie agindu hau interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako moduan, eta adieraz bekie, halaber, agindu honek administrazio-bidea amaitzen duela eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daitekeela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion salan, jakinarazten den egunetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, jakinaraz bedi, halaber, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola Lan Agintaritzari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 25a



**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA  
LAN ETA ENPLEGU SAILBURUA**